

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Borinbizkarra 1. sektoreko M30 lurzatiaren xehetasun-azterketari

Hauxe erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Borinbizkarra 1. Sektoreko M30 lurzatiaren xehetasun-azterketari.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua araberak, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko txosten loteslea jaso ezean, eten egingo da behin betiko onartzeko epea.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogeit hamar egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharak aurkezterik izan dezan ere.

Dosierra Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko zerbitzuan egongo da ikusgai, Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, Vitoria-Gasteiz, adierazitako epean, ALHAOn argitaratzen denetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 26an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA